

# BERANGO

*gaur*



## BERANGOK GERRA ZIBILEKO PAISAIK ERAKUSTEN DITU ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIETAN

ANTZEZTUTAKO BISITA BATEK HERRIKO PAISAIK HISTORIAN IZANDAKO BILAKAERA ERAKUTSIKO DU

elektronikoa bidaliz kudeatuko dira. Eskara handia egotekotan, bigarren talde bat antolatuko litzateke eta, kasu horretan, bisita urriaren 21ean, larunbata, bederatzi eta erdietan, burutuko litzateke. Bigarren talde honen kasuan, ibilbidea Sopolako Urkoko futbol zelaiko aparkalekutik hasiko litzateke.

ACADAE Berangoko paisaiaren bilakaera ere eskainiko da urriaren 14an, 19:00etan, egingo den antzezlan erakusketaren bidez. Herriko ACADAE antzerki taldeak (Arte Eszenikoen Lagunen Kultur Elkarte) garai desberdinetako pertsonaia anitzak erakutsiko ditu. Pertsonaia hauek modu dibertigarri eta didaktikoan paisaiak mendeetan zehar herrian jasan dituen aldaketak azalduko dituzte.

Hazten ziren landareak eta loreak, garai desberdinetako bizimoduak eta baserritarrek beraien ortuetan landatzen zutena erakutsiko dituzte. Horrek ikusleei historiaren une bakoitzean, arestiko garaiak arte, nola ulertzen zen paisaia ezagutzea ahalbidetuko die.

Lekuak mugatuak direnez, erreserbak 94 668 21 43 telefono zenbakira deituz egin behar dira, edo [berangokultura@berango.org](mailto:berangokultura@berango.org) helbidera posta elektronikoa bidaliz.

64 ZBKIA 2017KO IRAILA

BERANGO GAUR HILABETEKARIA  
BERANGO GAUR MENSUAL

“Paisaia bizia” urrian burutuko diren 2017ko Ondarearen Europako Jardunaldien gaia da. Berangon argazki erakusketa bat, Burdin Hesira irteera bat eta antzeztutako bisita bat egingo dira. “Hormigoizko Paisaiak” argazki erakusketak programazioari hasiera emango dio. Erakusketa honek Burdin Hesia defendatzen zuen obra izugarria begiestea eta Bizkaiko lurraldean hamarkadetan mutu iraun duela erakustea ahalbidetuko du. Hesia 1936 eta 1937. urteen bitartean eraiki zen eta Bizkaiko paisaia, oro har, eta Berangokoa, bereziki, aldatu zituen.

Defentsa militarerako altxatu ziren lubakiek eta hormigoizko obra horiek landak eraldatu zituzten eta larretan nabarmendu ziren, eraitsi zituzten arte. Hamarkadak pasatu ostean, zuhaitzek eta landareek estalitako aztarnak geratzen dira. Erakusketa urriaren 2tik 31ra zabalik egongo da Simon de Otxandategi kaleko 64. zenbakian kokatutako Berangoetako Kultur Etxean. Burdin Hesia-

ren Oroimenaren Museoa eta Berangoko Udalak lanegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bisitatu ahal izango den erakusketa hau antolatzen dute.

Jardunaldi hauetako hurrengo ekintza Museoa berak Berangoko eta Sopolako Udalekin batera antolatzen du. Urriaren 7an izango da eta basoak ezkatzen dituen Gerra Zibileko paisaiak ezagutzeko bisita gidatua izango da. Burdin Hesiko eraikuntzak eraitsi egin dira eta gaur egunera arte iritsi zaizkigun hondarrak landarediak estalita egon dira, segak eta suak argitara eman dituzten arte.

Bisita hasteko topagunea Burdin Hesiaren Oroimenaren Museoa izango da, Berangoko Simon de Otxandategi kaleko 64. zenbakian kokatuta dagoena. Irteera urriaren 7ko, larunbata, bederatzi eta erdietan izango da eta aktibitate honek lau ordutako iraupena izango duela aurreikusten da. Informazioa eta erreserbak 94 668 21 43 telefonoaren bidez edo [burdinhesia@berango.org](mailto:burdinhesia@berango.org) helbidera posta

[www.berango.net](http://www.berango.net)



**Berango**  
Guztion konpromisoa  
Un compromiso común  
21

[berangokoudala@berango.org](mailto:berangokoudala@berango.org)



## HITZALDIA: GERRA ZIBILA BERANGON (1936-1937)



CONFERENCIA: ASPECTOS DE LA GUERRA  
CIVIL EN BERANGO (1936-1937)

IRAILAK

21

SEPTIEMBRE

19:00

Berangoeta  
Kultur Etxea

Hizlaria: **Aitor Miñambres**  
(Berangoko Burdin Hesiaren  
Oroimenaren Museoko arduraduna)

Edukia: Ordu bete inguruko hitzaldia eta diapositiba aurkezpena; bertan azalduko dira Berangon Gerra Zibilak izan zituen aragin eta ezaugarrien ganeko zehaztasunak: Euzkadiko Gudarozteko berangoztarrak, Burdin Hesia eraikitea, herrian gertatu ziren bonbardaketak, arma-fabrika, gerrako haurrak, herria frankisten tropen eskuetan jausi zenekoa, eta abar.

Ponente: **Aitor Miñambres**  
(Responsable del Museo Memorial del Cinturón de Hierro de Berango)

Contenido: Conferencia de una hora de duración acompañada de diapositivas, que tratará sobre diversos aspectos de la Guerra Civil en Berango: los combatientes berangoztarras en el Ejército Vasco, la construcción del Cinturón de Hierro, los bombardeos sufridos en la localidad, la fábrica de armas, los niños y niñas evacuados y la caída del pueblo en manos de las tropas franquistas entre otros.



**Berango**  
Guztión konpromisoa  
Un compromiso común 21



Berangoko  
Udala

## FAMILIA BATEN ZAIN JARRAITZEN DUTE

Amatza Auzoa, 5 lurreta 48215 (Goiuriko bidea). Bizkaia.  
Zentroko ordutegia: astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00; 16:00-19:00;  
Zapatuak: 10:00-14:00

Ba al dakizu, gaur egun, Berangoko herrian bertan batu diren 5 txakur daudela txakurtegia, adopzioaren zain? Interesaturik egonez gero, ikustera joan zaitezke, **ZAUNK**-era



Izena: **Saiko**  
Arraza: **Setter**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **2 urte**  
Ezaugarriak:  
**Lagunkoia eta aktiboa**



Izena: **Lolo**  
Arraza: **Mestizo**  
Sexua: **Arra, zikiratua**  
Adina: **2 urte**  
Tamaño: **Txikia**  
Ezaugarriak: **Lagunkoia**



Izena: **Ron**  
Arraza: **Mestizo**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **2,5 urte**  
Ezaugarriak:  
**Lagunkoia eta maitekorra**



Izena: **Tak**  
Arraza: **Setter**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **3 urte**  
Ezaugarriak: **Lagunkoia,**  
**baina aktibitatea behar du**



Izena: **Spike**  
Arraza: **Spaniel Bretón**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **3 urte**  
Ezaugarriak: **Lagunkoia,**  
**beste txakur eta pertsonekin**

# UDAL IKASTAROEK ADIN GUZTIETARAKO AKTIBITATE UGARI ESKAINTZEN DITUZTE

3 ETA 4 URTEKO HAURRAK INGELESEAN HAS DAITEZKE "LOVELY ENGLISH" REKIN

**P**ertsona ugari parte hartuko dute aurten ere udal ikastaroen eskaintza zabalean. Edizio berria urrian hasiko da, adin guztietarako eskaintza anitzarekin eta Berdintasunaren aldeko aktibitateekin. Helduentzako ikastaroek, 18 urtetik gorakoentzat, aukera desberdin ugari aurkezten dituzte, hala nola, altzarien zaharberriketa, zur lanketa, tai-chi, eskulanak, margolaritza, saloi dantza, euskera, ingelesa eta euskal dantzak. Guztiak hiru hilekoak dira eta, jende ugari parte hartzen badu, bigarren lauhilekoan jarraituko dute.

Umeentzako aktibitateen artean dantza modernoa nabarmentzen da. Lau talde desberdin egongo dira ekintza honetan, 4 urtetik 17 urtera arte. Txikienei, 4 eta 5 urte bitartekoak, klaseak ingelesez eskainiko zaizkie. Aukera berdina dute margolaritzarekin, adinaren arabera bi talde ezberdin osatuko direlarik, 5 eta 7 urte bitartekoak eta 8 eta 11 urte bitartekoak. 3 eta 4 urteko umeek hizkuntza honetara hurbiltzeko eskaintza kulturala izango dute, "Lovely English" deitutako ikastaroaren bidez. Era berean, eskalatzeak aukera izango dute 10 eta 14 urte bitarteko gazteek.



Nagusiek ikastaroak Nagusien Etxean jasoko dituzte eta betebeharreko baldintza 60 urte baino gehiago izatea da. Eskaintza zabala izango da eta iraupena ezberdina. Gimnasiako ikastaroa urte osokoa da eta astearteetan eta ostegunetan eskainiko da. Abesbatzaren aktibitatea doakoa da, baina izena aldezturik eman behar da. Saloi dantza eta tai-chi ikastaroak hiru hilekoak izango dira eta arratsaldeetan eskainiko dira.

ADIMEN EMOZIONALA Berdintasunaren sailari dagokionez, bost tailer ezberdin bultzatzen dituzte. "Adimen emozionala" eta "oroimena indartzea" hiru hilekoak dira, Nagusien Etxean. Beste ikastaroak urtekoak izango dira eta Berango Antzokian edo Santa Anako Kultur Etxean egingo dira. Koedukazioa hilearen bigarren astearteetan, arratsaldeetan, eskainiko da eta erlaxaziokoa astelehenean goizean izango da, Aerobic, Bizkortze eta

Teinkadak ikastaroak bezala. Aktibitate honetan, laburtzeko ABT deitutakoa, bi talde egongo dira: bat astelehenean eta asteazkenean, 20:00etan, eta bestea astearteetan eta ostegunetan, 14:00etan.

Jubilatutako pertsonentzat Nagusien Etxean zerbitzu batzuk ere eskainiko dira, podologia adibidez. Kasu honetan, jubilatuek 10 euro ordaindu behar dute sesio bakoitzagatik eta 16 euro 60 urte baino gehiago badute eta lanean jarraitzen

badute. Aholkularitza juridikoa lortzeko aukera ere izango dute, dohainik. Kasu bietan hitzordua aldezturik eskatu beharko da. Irteerei, txangoei edo eta ordenagailu ikastaroari buruz informazio gehiago jasotzeko, Nagusien Etxeko bulegoan galdetu edo 94 602 65 28 telefono zenbakian.

Ikastaro gehienak urrian hasiko dira eta prezio ezberdina izango dute, merkeena 12 eurokoa izango delarik.

## EKO GUNEK 11 IKASTARO BULTZATZEN DITU SUKALDARITZA PROTAGONISTA DELARIK

Chutney eta saltsak eta ozpinetakoak eta gazikiak elikagaiekin erlazionatutako bi monografiko egongo dira

Ekogunek, Uribe Kostako Mankomunitateko Iraunkortasuneko Saila, ikastaro desberdinak antolatuko ditu, izena emateko epea irailaren 30era arte zabalik egongo delarik. 11 tailer ezberdin izango dira eta jangarriak diren perretxikoak hartzen ikasi edo bermikonpostoa bezalako gai anitzak landuko dira. Sukaldaritzak indar berezia izango du Ekoguneak aurkeztutako eskaintzan, batez ere praktikoak izango diren ikastaroekin.

Mikologiaren hasapena eta hasiak nola bildu eta kontserbatu irakatsiko da. Euskeraz eta erderaz bermikonpostoa eta sukaldaritza aprobetxagarria eskainiko dira, janaria zaramara ez botatzeko errezetak eta aukerak ezagutzeko oinarritzen dena. Sukaldaritza ikastaro hauetako oinarria izango da eta bi monografiko antolatuko dira: bat Chutney

eta saltsak eta bestea ozpinetakoak eta gazikiak elikagaiekin lotuta. "Nola sukaldatu umeentzat ahaleginen amore eman gabe" eta "Hasi-berrientzako sukaldaritza jasangarria" tailerrek ikastaroen eskaintza osatzen dute. Kurtsoak doakoak dira eta 18 urtetik gora duten pertsonen zuzenduta daude, beti ere Mankomunitatea osatzen duten zazpi herriren batean erroldatuta egonda, Berango barne. Izena emateko [cur-sos@uribekosta.org](mailto:cur-sos@uribekosta.org) helbidera posta elektronikoki, fax bat 94 676 28 72 zenbakira edo ohiko posta bitartez Uribe Kostako Mankomunitatera, Gatzarriñe kalea 4, 48600 Sopela helbidera bidali daiteke. Lehenengo lauhilabete honetako ikastaroen informazioa eta oinarriak Mankomunitateko web orrialdean kontsultatu daitezke.



## "Udan ere irakurtzen dut" argazki lehiaketa

Berangoko liburutegiek sakelako telefonoarekin ateratako argazkien lehiaketa bultzatzen dute. Aurkeztutako irudietan liburua protagonista izan behar da, udarekin edo oporrekin erlazionaturik. Irailaren 22an [liburutegia@berango.org](mailto:liburutegia@berango.org) helbidera lanak posta elektronikoki bidez bidaltzeko epea amaitzen da. Postan egilearen datuak (izena, adina eta telefono zenbakia) agertu behar dira eta "Udan ere irakurtzen dut" lehiaketan parte hartu nahi dela agertu behar da postaren gainean.

Pertsona bakoitzak bi argazki aurkez ditzake, gehienez. Lehenengo saria hiru eguneko bidaia izango da eta bigarrena bi eguneko. Sari biak bi pertsonentzat izango dira eta ostatua eta gosaria eskainiko dituzte. Epaimahaiak saria ez banatzea erabaki ahal izango du. Irabazleak irailaren 25ean ezagutuko dira.

## SANTO DOMINGOKO IRUDIAK

**G**iro ona egon zen Santo Domingoko jaietan, nahiz eta euriak festa batzuk ilundu. Jende ugari hurbildu zen Suetziako Abba taldeari dedikatutako kontzertura eta giro ederra egon zen. Berangoko lagun ugari ere Bakailao Herrikoian parte hartu zuten, herriko familia eta talde askorentzat falta ezineko eguna bihurtu delarik.

## IMÁGENES DE SANTO DOMINGO

**H**ubo buen ambiente en las fiestas de Santo Domingo, donde la lluvia deslució algunos festejos. Destacable fue la asistencia y el ambiente registrados en el concierto dedicado al grupo sueco Abba. También muchas cuadrillas de Berango se dieron cita en la Bakalada Popular, que ya se ha convertido en cita obligada para muchas familias y taldes del municipio.

